# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## 5714

*AGINDUA, 2011ko urriaren 17koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Elorrioko (Bizkaia) «María Mediadora» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularitatea aldatzeko baimena emateko dena.*

Elorrioko (Bizkaia) «María Mediadora» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena eskatuz, ikastetxe horren erakunde titularra den «Congregación Misioneras Parroquiales del Hogar» erakundearen ordezkariak abiarazitako espedientea aztertu da.

Espediente horri Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Heziketarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua, eta alor honetan ezar daitekeen indarreko legeria aztertu ondoren, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– «María Mediadora» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularitatea aldatzeko baimena ematea: orain titularitatea «Congregación Misioneras Parroquiales del Hogar» entitateak du eta aurrerantzean «Iglesia Católica-Diócesis de Bilbao» entitateak izango du; berak subrogatuko ditu ikastetxearen betebehar eta eskubide guztiak. Ikastetxea Elorrioko udalerriko (Bizkaia) Urarka kaleko 2an dago eta 48004404 kode-zenbakia du.

2. artikulua.– Titulartasun aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da. Horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– 2011-2012 ikasturtetik aurrera ekarriko ditu ondorioak agindu honek.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 17a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.